

XVI. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

XVI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaikideek -Jose Antonio Perez Gabarain, mahaiburuak, Jose Inazio Basterretxea, Allande Boutin, Mikel Irizar, Laura Mintegi, Ana Urkiza, eta idazkari gisa eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe, Nekane Goikoetxeak- aho batez adostu dute ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea.

1.- Dakizuen bezala, euskaraz egindako kazetaritza suspertzea da sari honen helburu nagusia; kazetariak urtebetean eginiko lana behatzea eta baloratzea, berriz, epaimahai honen egitekoa.

Sari honen bitartez Rikardo Arregi herriko semea gogorarazi nahi du Andoaingo Udalak. Bere gaztetasunean, euskal kazetaritza bizi-berritzeko ahalegin oparoa egin zuen. Bazuen bere etxean euskalgintzan aritzeko eredurik. On Eugenio Arregi, osaba, gogoratu nahiko genuke gaurko ekitaldian, duela gutxi zendu baita. Ezin izan du ospatu, beraz, bere eskutik duela 40 urte sortu zen Larramendi Ikastolaren urteurrena. On Eugenio Arregi aitzindaria izan zen, bere iloba Rikardo bezalaxe. Epaimahaikide guztien besarkada jaso beza bere sendiak.

Kazetari Berriaren atalarekin helduko diogu sari banaketari. Aurten, aldaketa txiki bat egin du epaimahaiak atal honetan. Honela, orain arte 25

urtez azpikoek zuten sarira aurkezteko aukera, XVI. ediziotik aurrera, ordea, 27ra luzatu da adina, Rikardo Arregi bera zendu zenean zuen adina kontuan hartu da horretarako. Atal honen helburua kazetaritzaren hastapenetan dabiltzan kazetariei bultzada ematea da eta adin-muga egokiagoa jo da 27 urteena.

2.- Hauxe da epaimahai honen erabakia:

* **2.1.- “Kazetari berria”** ataleko saria, 3.000,- euroz, diplomaz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurraz hornitutakoa. Kazetaritza munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat pentsatua, gehienez 27 urte dituztenek dute aurkezteko aukera.

Aurtengo irabazleak honako merezimenduok ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaiaren iritziz:

- Heldutasunarekin lotzen ditugun hainbat ezaugarriren jabe da kazetaria.
- Erregistro ezberdinetara moldatzeko abilezia erakutsi du; kronika, iritzi nahiz analisiari bere tonua eman.
- Bapatekotasunean harritzeko maila eman du.
- Informazioa ongi aukeratzeaz batera, ongi baino hobeto komunikatzen du, publikoari egokitua, erregistro ezberdinei moldatua. Igorle-hartzaile arteko zubigintza lantzen du.
- Errepikapenaren baliabidea oparo erabiltzen du, egoki bezain zuzen, baita umorearena ere, gaiak interesgarri bihurtuz.

- Gauzak biribiltzeko gaitasun handia erakutsi du. Idatzizko lanetan errazagoa da hori egitea, kazetari gazteak, ordea, ahozko jardunean lortzen du hori.

+ *Sariduna: **Aritz Agirre Escribano jauna***

+ *Saritutako lana: 2003ko ekainetik 2004ko maiatzera bitartean Euskadi Irratirako Madrileko berriemate gisa egindako lanak.*

* **2.2.- XVI. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko “Sari Nagusia”**, diplomaz, 9.000,- euroz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurrak hornitutakoa. Honen bitartez saritzen direnak kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna dira.

Saritutako lana zein den argitu aurretik, aipamen berezi bat egin nahiko luke epaimahaiak. Ondorengo lanak Sari Nagusia eraman ez duen arren, epaimahaiak aitortzen merezi duela irizten du, ondorengo arrazoiengatik:

- Sentsibiltate itzela erakutsiz, gure inguruko gai txikiak unibertsalak egiten asmatu dute.
- Jende guztiarengana iritsiz, erabat goi mailako ekoizpena egin dute; estilo propioa duena, gozoa, landua, estetikoa.
- Pertsona jakin batzuetarik abiatuta, herri oso baten dramaren berri ematen zaigu. Andoaingo hainbat familiak guda zibilean bizitakoak balore unibertsal bihurtu dituzte. Pertsona ahostunak egitura egokian eman dituzte eta istorioa biribiltzen jakin.
- Benetako finalista baten aurrean gaude.

+ *Aipamen berezia: **ETBko Postdata saioko***
“Isiltasunaren zama” izeneko lana egin duen lan-taldea.

+ *Aipatutako lana: Guda zibileko Andoaingo fusilatuen senideen testigantzak biltzen dituen “Isiltasunaren zama” izeneko lana, zeina 2004ko apirilaren 29an emititu zen ETBn.*

Jarrai dezagun, XVI. edizioko “Sari Nagusiarekin”. Hauek dira epaimahaiaren ustez azpimarratzeko alderdiak:

- Kosmopolitismoa da aipatu nahi dugun lehen ezaugarria. Ikuspuntu euskaldunetik, hemengo baloreetatik abiatuta, gure begiradarekin aztertzen da mundua.
- Horri, gainera, itzelezko background kulturala erantsi behar zaio. Pultsu handiz, modu pertsonal eta indartsuan, erritmo biziz ematen da informazio zehatz eta zuzena. Erraz kontatzen du autoreak zaila dena, maila sekula ere jaitsi gabe.
- Testu landuak ditugu, ongi harilkatuak. Ederki asko ezberdintzen da zer den datuak ematea eta zer gauzak azaltzea. Gogoangarriak dira testuen sarrerak.
- Genero interpretatiboarekin zerbait berria sortu du kazetariak, iritzia erreportajez jantzi du; pertsonaia eta datuek aurpegia jartzen diote analisiari.
- Orokorretik partikularrera eta partikularretik orokorrera, ongi uztartzen dira bi planoak. Ez da konparaketa merkerik egiten, sentsibilitate handiz, gaien arteko katebegiak fin-fin uztartzen dira.

+ *Sariduna*: **Jose Mari Pastor jauna.**

+ *Saritutako lana*: 2003ko maiatzetik 2004ko maiatzera Berria egunkarian argitaratutako Leku-lekutan deituriko lanak.

3.- Ohorezko Aipamenari helduko diogu jarraian eta Sari Nagusian zedarritutako merezimenduetako bati lotuko gatzaizkio horretarako.

Kanpoko gaietan euskal ikuspegia izatea eta sustatzea txalotu dugu arestian, ikuspegi propioa, beregaina, Euskal Herrian sortua, euskaraz taxutua. Zalantzarik gabe, hori egin ahal izateko autozentratze bidean dagoen hizkuntza-komunitatea behar dugu izan. Hori aldarrikatzen du Rikardo Arregi Mintegiaren laguntzarekin eginiko tesi doktoralean Zuberogoitia ikerlariak. Zeregin horretan, telebistaren indarra argia da.

Bestalde, kazetaritza enpresek benetako profesionalizazioak ekar litzakeen arriskuak beren gain hartzeko konpromisoa hartu dutela ikusi dugu aurten. Hedabide berriak sortu dira (Aldaketa 16, Hitza berriak, Xirika gazte aldizkaria), komunikazio-informazio fakultate berri bat irekiko da udazkenean eta kazetagitza sakontzeko kongresua abian da. Ez dira ekimen guztiak arrakastatsuak gertatu, ordea. Aipatzekoa iruditzen zaigu Asteon telebista-astekariarekin gertatu dena. Bihoa gure elkartasuna proiektuan inplikaturik egon direnentzat, espero dezagun etena behin betikoa ez izatea. Hala eta guztiz ere, euskarazko hedabideen eskaintzak nola kontsumoak gora egin du, urte luzeen emaitza inondik ere.

Duela 22 urte, 1982ko maiatzean onartu zen 5/1982 Legea, Euskal Irrati-Telebista erakunde publikoa eratzeari buruzkoa, eta 1982ko abenduan, eguberrietan, eskaini zen ETBren lehen emisioa. 22 zenbakiak ez du berez magia handirik, baina aurtengo oparotasunak berak argitzen du zenbakia. Aurtengo kemenak argi egiten dio ordukoari eta aurtengo testuinguru zailek egiten dute ordukoarekiko zubi. Horra hor Ohorezko Aipamena. Europak euskara aintzakotzat hartu nahi ez duen urtean, biribila iruditu zaigu euskara hutsezko telebistaren alde apostu garbia egin zuen taldeari eskerrak ematea.

Euskal telebistaren atzean, talde handi bat aurki dezakegu, politiko, kazetari, tekniko, bikoizle e.a. Ez da, hala ere, orduko eguneroko ahalegin eskerga Aipamen honek saritu nahi duena; sinismena da, irizpidea da, kemena da. Euskarazko etorkizunaren aldeko apostua egin izana da eskertu nahi duguna. Hasiera-hasieratik euskal komunitatea autozentratzeko telebistaren indarra argi izatea, ekimenaren bideragarritasunean izandako sinismena, euskararen aldeko irizpide garbiaz jokatzeari eta, zailtasunak zailtasun, aurrera egiteko kemena dira azpimarratu nahi ditugun merezimenduak. Izen batekin lotzen dugu momentua eta Ramon Labaien da, euskal telebistaren egitasmoa abiarazi aurretik, aurkitzen dugun ekintzailea. Badakigu ez zela bakarrik izango, baina bera omenduz aipatu nahiko genuke momentu hartako ereduak.

XVI. edizioeko Ohorezko Aipamena, Ramon Labaienek berak jasoko du. Andoaingo Alkatearen eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren eskutik jasoko ditu, urrezko paparrikurra eta diplomak.

Honaino, bada, *XVI. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion *azken erabakia*. Epaimahaikideok ontzat ematen eta sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta lauko uztailaren hiruan.

José Antonio Pérez Gabarain

Jose Inazio Basterretxea

Allande Boutin

Laura Mintegi

Mikel Irizar

Ana Urkiza

Nekane Goikoetxea